


# PR -BI 163

## Errota erreka batetik ibilbidea. Recorrido por un arroyo molinero.

Km 4,4 | 50m | 1h 25´

1 2 2 2







Errotak ugariak izan ziren Urdaibaiko erreketan. Ibilbide erraz honek horietako batzuk eta paduraren edertasuna erakutsiko digu, besteak beste.

*Abundaban los molinos en los ríos de Urdaibai. Este fácil recorrido nos acercará a algunos de estos y nos descubrirá la belleza de las marismas.*


Oleta


Musatadi


Errekalde

Gautegiz-Arteagako paisaiak eskaintzen dizkigun ikuspegiak askotarikoak eta bikainak dira. Ibilbide biribil erraz honek horietako batzuetara hurbilduko gaitu. Zelaietatik abiatuta, udaletxearen parean, ibilbidea Errekalderantz doa. Bertan, errota-erreka eder batek (Olalde) artadiaren muga zeharkatzen du, Ereñozarreko piramide-formako gailurraren itzalean. Oletako eta Goikoerrotako errotek oraindik kontserbatzen dituzte beren anteparak edo makineria hidraulikoa.

Errekastoa inguratuz, Olangoitiko auzo-bidera iritsiko gara, Andra Mari elizara, Montorre eskola txikiaren ondotik igaro ondoren. Errepidera jaitsiko gara eta, gurutzatu ondoren, Arteagako gazteluaren ingurura helduko gara.

Ibilbideak auzo-bideetatik jarraitzen du Orueta auzoraino, non Urdaibai Bird Center dagoen. Auzo-bideetatik jarraituko dugu Zelaietara heldu arte, eta, parkearen ondotik igaro ondoren, udaletxe plazara iritsiko gara.

Son diversas y exquisitas las vistas que nos ofrece el paisaje de Gautegiz-Arteaga. Este fácil recorrido circular nos acercará a algunos de ellos. Partiendo de Zelaieta, frente al ayuntamiento, el recorrido se dirige hacia Errekalde, donde un bello arroyo molinero (Olalde) recorre el límite del encinar, a la sombra de la cima piramidal de Ereñozar. Los molinos de Oleta y Goikoerrota aún conservan sus anteparas o maquinaria hidráulica.

Bordeando el arroyo alcanzaremos el camino vecinal de Olangoiti, que asciende hasta la iglesia de Andra Mari, tras pasar junto a la pequeña escuela de Montorre. Descenderemos a la carretera para, tras cruzarla, alcanzar las inmediaciones del castillo de Arteaga.

El sendero continúa por caminos vecinales hasta alcanzar el barrio de Orueta, donde se alza el Urdaibai Bird Center. Continuaremos por caminos vecinales hasta alcanzar nuevamente Zelaieta, donde tras pasar junto al parque llegaremos nuevamente a la plaza del ayuntamiento.

plana

## eta gero...
## y después...

Zatoz Urdaibai Bird Centerrera eta ezagutu hegaztien munduko sekretu eta migrazioari buruzko guztia. Gainera, Oruetan eta Ozollon behatokiak bisita ditzakezu.

Gure ibilbideko adar polit bat Ozollo aldera abiatzen da. Bertan, mareen errota zaharra ageri da eta, bere inguruan, San Lorentzo baseliza ederra dago.

Zelaietak, Gautegiz-Arteagako gune nagusiak, tabernak, parkeak eta berdegune zabalak ditu atseden hartzeko.





Acércate al Urdaibai Bird Center y descubre los secretos de las aves y su migración. Además puedes visitar los observatorios en Orueta y Ozollo.

Un bonito paseo parte de nuestro recorrido para acercarse a Ozollo, donde se esconde el viejo molino de mareas y en cuyo entorno cercano está la bella ermita de San Lorenzo.

Zelaieta, núcleo principal de Gautegiz-Arteaga, cuenta con bares, parques y amplias zonas verdes para descansar.